

Pirinioetako euskal toponimoak: direnak eta diratekeenak

PATXI SALABERRI ZARATIEGI

Nafarroako Unibertsitate Publikoa - Euskaltzaindia

Lan ugari eta onak egin dira orain arte Pirinioetako toponimiaren inguruan, eta, jakina, denen berri izatea, denak ezagutzea biziki zaila eta nekeza da. Hitzaldi honetan ez naiz hasiko Pirinioetan euskarazkoak, hots, euskaratikakoak izan daitezkeen toponimo guztiak banan-banan aztertzen, denbora nahikorik ez dagoelako eta horretarako goitik beherako arakaketa egin behar nukeelako, hona baino lehen, euskal toponimoen bila. Oraingo nire helburua hurrengo hau da: hizkuntzalariek Pirinioetako euskal toponimoez hitz egiten dutenean euskal onomastikaren ikuspuntutik kontuan izan behar lituzketen puntuak azpimarratzea. Uste dut orain aipatuko ditudanak aintzat harturik baleko ondorioak irits ditzakegula Pirinioetako euskal toponimoez ihardukitzean. Ez dira beharbada aski, baina bai beharrezko, nire irudiko. Has nadin bada luzatu gabe:

1. Zuhurtziaren beharraz

Lehenik eta behin erran nahi dut zuhurtziaz ikusi eta ibili behar ditugula zenbait ikertzaile «baikorren» lanak. Hau bistakoa dela dirudi, baina ez dakit denendako hola den eta horregatik, balekibale, hona ekarri nahi nuen. Iragan mendearen erdialdean argitara emandako lanean honela zioen Alvar-ek (1951: 11) gai honen kariatara: “La toponimia es siempre terreno escurridizo — acaso esto la haga más apasionante— y debemos ser cautos sobremanera”. Guztiarekin, bera ere zenbait aldiz ez dabil, nire irudiko, bide zuzenetik, argibidez Pirinioetan agertzen diren *karri*, *arri* ‘harria’-ren eratorriak aipatzen dituenen. Azalpen etimologiko errazen etsenplutzat A. Grierak (1950: 239) *Andorra* dela-eta dioena ekarriko dut hona:

Hace muchos años en el *BDC*, IV (*Bulletí de Dialectologia Catalana*, oker ez banaiz) he sugerido la idea de que el nombre de *Andorra* podía derivar de *in*

Orrea (aurreko paragrafoan *horreu* ‘bihitegia’-z eta Pirinioetako garaiez dihar-du), etimología que no aceptan ni H. Schuchardt (*Ib. VIII*), ni Meyer-Lübke. Los dos eminentes romanistas le atribuyeron un origen prerromano. A pesar de esta atribución mis dudas no se han disipado: la presencia de *Dorri* (839 Dorria) en el valle de Tosas y la presencia de Nuria, con evolución de la *o* tónica a *u*, no eliminan mis dudas sobre el origen románico y pastoral de *Andorra*, *Dorri* y *Nuria*.

Baikortasunaren seinaleztat autore beraren beste hau ere eman daiteke: «Al hablar de *Euella* he hecho alusión a los nombres dobles, o sea que existen (sic) una serie de topónimos preromanos (resic) que tienen su traducción al lado» (ibid., 246). Ez legoke arazorik leku izenen etimologiez aritzen garenondako gauzak autore honek dioen bezala balira, baina, zorigaitzez, bakanka baizik ez ditugu aurkituko holakoak. Coromines hizkuntzalari bikaina ere baikorregi agertzen zait niri behin baino gehiagotan; 1961eko lanean, konparazio baterako, honela dio (113. or., etzana nirea da):

Dans le Haut Aragon et dans le N.-O. de la Catalogne ces noms (les noms à parenté basque) se trouvent en masse. C’est désormais vers ces contrées que nous allons nous tourner: Ribagorce, Pallars, Val d’Aran, Haut Urgel, Andorre, Cerdagne. Là et en Aragon *ces noms apparaissent dans des masses tellement grandes que cela nous fournit une sensation de grande sécurité, et des éléments de comparaison assez nombreux pour nous enlever souvent tous les doutes.*

Nik ez dut ukatzen Aragoin, Euskal Herritik hurbil eta menturaz haratago ere bai, euskal toponimo zenbait azaltzen direla, baina hortik kopuru handiez mintzatzeraz igarotzeraz bada bide. Corominesek dioena deigarria da, berak aitzinxeagoko beste lan batean (1955: 305) toponimian apaltasuna eta zuhurtzia handia behar-beharrezkoak direla garbi erraten duelako: “I en definitiva la nostra conclusió ha d’esser que en l’estudi dels noms de lloc s’imposa molta humilitat i modèstia, i una gran dosi de prudència”. Gogoeta hori berori egiten du urte bereko beste lan batean ere (1955b: 403-404).

Azalpenak beti eman daitezke, bikainak, onak, erdipurdikoak, txarrak edo arrunt txarrak, baina nik uste hobe dela gauzak garbi ez dakuskigunean ez dakigula erran eta planto egitea, inolako egiantzik ez duten azalpenetan tematu eta egoskortzea baino. Alderdi honetatik, uste dut Orpustan jauna bere 1990eko liburuan Iparraldeko herrien izenak azaltzeko tenorean, ardura, urrutiegi joaten dela, inora ez garamatzen irteerarik gabeko bide batetik. Puntu honetan notatzekoa iruditzen zait Meyer-Lübkeren jokabidea, 1923ko lanaren hastapenean honela erraten baitu (1): “Tot seguit entraré en l’exposició

del tema; però he de fer notar que, amb tot i procurar resoldre aquesta interessant qüestió filològica tant com em sigui possible, prou quedaran una munió d'enigmes la interpretació dels quals altres hauran d'empendre”.

Gogoan hartu behar da, bestalde, badirela euskal toponimian inola ere gardenak ez diren izenak, eta bestelako argitasunik erdiesten ez dugun bitartean alferrekoa izanen dela izen horiei, baitezpada, azalpena ematen saiatzea. Bistan denez, ez ditugu Pirinioetako leku izen ilun guztiak ulertzen, baina horregatik ez ditugu euskaratikakotzat hartu behar. Latinaren aurrekoak izan daitezke, euskararekin zerikusirik izan gabe ere.

2. Euskara jakitea edo gutxienez euskara ezagutzea ezinbesteko baldintza da euskal toponimia aztertzeko

Euskara jakitea edo euskara ezagutzea bederen garrantzi handikoa da, bai eta honen arau eta bilakaera fonetikoaren berri zehatza izatea ere. Bestela, jakina da, Fouchék (1947: 14) egiten duena egin dezake edonork: ikertzaile honek *Maladeta* mendi izena aztertzean (*Aneto*-tik hurbil dago eta ia hau bezain garaia da) *M* L* oinarriaren hainbat aldaera aipatzen ditu Asia-Europetan, eta oronimo horren *Deta* ‘haitza’ bigarren osagaiaren jatorrian omen dagoen *T* K* oinarriaren *toca* aldaera apelatiboa ere jasotzen du. Honekin zerikusia dutenen artean euskarazko *ataka* biltzen du eta *a-taka* zatitu behar dela erraten: «De même, le basque possède un mot *ataka*, qu’il faut sans doute décomposer en *a-taka* et dont l’une des significations données par Azkue est celle de “sitios pedregosos, endroits pierreux”». Edozein euskaldun ikasik daki *ataka ate*-ren txikigarria dela, *behoka*, adibidez, *behorra*-rena den bezala. Fouchéren kasuan ezjakinez landara ikuspegi interesatua ere bada, jasotzen duen Azkueren adiera lekeitiarrak ematen duen zazpigarrena delako, Zaraitzukoa, eta gainera ez du osorik biltzen, euskaltzainburu izan zenaren hiztegian «senderos, sitios pedregosos» baitago, segur aski zaraitzuarrek ibilitako (altxon)bideetako ataketatik igarotzen ziren bideak aski harriztuak zirelako. Nolanahi ere, Fouchék aurreko sei adierak —denak elkarrekin lotuak— alde batera uzten ditu, bai eta, berebat, *ataka*-rekin erlazionatutako gainerako sarrerak ere.

Caro Barojak (1995 [1949]: 61) bestek bestetan egin duen ildo beretik, erdal fonetika historikoaren ikuspuntutik hauta den azalpen etimologikoa ematen digu Gipuzkoako *Orexa* (*Oreja* gaztelaniaz) toponimoarendako: ikertzaile ezagunaren arabera, erromatarren ustiapena izanen zen aipatutako he-

rria, eta honen izenaren etorkia behialako (*villa*) *Aurelia*-ren moduko bat. Honek, erran bezala, ez du akatsik gaztelaniaren bilakaeraren ikuspuntutik, baina erabat akastuna da euskaratik begiratuta, bertakoak egun oraino ongi euskaldunak direlarik ez baita aise ulertzen nola bizi diren herriaren izenak erdararen bideak ibili dituen, euskararenak ibili beharrean. Gero, jakina, lan honetan aipatzen dugun «tradizio»aren arabera, oraingoan Caro Barojaren izenak eta omenak bultzaturik seguruenik, Lapesa bezalako autore batek bere egiten du (1972: 12) delako ustekaria.

Antzekoa da Menéndez Pidalek *Orígenes* (103) ezagunean egiten duena: *al* + *kontsonante* segidaren bilakaeraz ari delarik, *alba* ukitzen du eta dio Bizkaiko *Ova* (*Oba*, Dimako auzoa da) toponimoa etimo horretatik atera dela, euskaraz hori ezinezkoa dela ohartu gabe. Mitxelenak gutxienez bi lanetan (1954: 382-383, 1956: 183) arbuia zuen espainiar filologoaren azalpena, lehenik izena antzina *Oa* zelako eta bigarrenik euskaraz *Alba* > *Oba* bilakaera ohikoa ez delako. Coromines ere ez dabil fin (1955b: 415) *Les Oluges* eta *Olost*-erako *ol* ‘planché’ proposatzen duenean, euskaraz hitz hori *ohol* delako aurrena eta gure toponimian usaian azaltzen ez delako gero.

Beste etsenplu batzuk, ondoko puntuarekin lotura egiten dutenak, B. eta J.-J. Féniéren lanean azaltzen zaizkigunak dira. Ikertzaileok, zabalkunde liburu batean, **kar-* / *gar* ‘pierre’ erroa aztertzean *Garos*, *Carrese*, *Le pic de Gar*, *Carcassonne* eta beste aipatzen dituzte (1992: 14), eta badaiteke hola izatea, hots, toponimo horien guztien oinarrian aipaturikako erroa egotea, baina gero erraten dute euskaraz horren aldaera *har* / *arr* dela eta *hari* (sic) hitzean eta *Arette*, *Aruddy* eta *Arres d’Anie*-n dagoela. Jakina, eta *Arette*-ri dagokionez, Grosclaudek (1991: 52) 1186ko *Areta*, 1440ko *Erete*, 1444ko *Aretha*, *Eretha* eta 1538ko *Hereta* biltzen ditu, eta Lopez-Mugartzak (2008: 143 eta hurr.) euskarazko aldaeratzat *Ereta* darabil. Autore honek dio Knörr-en arabera Grosclaudek proposatzen zuen *Arrieta* etimologia baztertzeak dela, baina zirrikitu bat uzten dio hala ere, erranez *Arrieta* horretatik atera bada forma erromanizatu datekeela *A(r)reta*. Zaila da, nire irudiz, dardarkari anizkuna ongi ebaki den alderdian hor *harri* ikustea, gurean, ondoan bokala badu, beti dardarkari horixe agertzen delako. *Arcachon* azaltzeko Féniétarrek (1992: 18), ziurtasun handirik gabe oraingoan, *aruka* ‘brèche, fente, crevasse’ ematen dute, baina hitz honen euskarazko forma *arruka* da, berriz ere dardarkari anizkunarekin.

Orain urte batzuk, *OEH* argitaratu aitzinetik zalantza gehiago izan zitezkeen hitzen inguruan, eta egun arazo guztiak argiturik ez badaude ere, tresna bikaina dugu esku artean etimologiaren munduan urrats seguruz abiatu nahi dugunerako. Terradok (1992: 104) bere egiten du Corominesek *Ovis* he-

rrikkaren izenaren gainean dioena, edo gutxienez honen oinarrian dagoen hitzaz dioena (*obe* ‘cleda’, ‘clos per tancar-hi bestiar’) eta bukaeran pluralitatea adierazten duen *-i(t)z* atzizkia dakusa. Azken hau alde bat utzirik, bistan da gurean *obe* oinarria ‘hobea’ ez bada *obe*-ren aldaera dela, baina ez, *OEH* ikusirik, aipatu berri dugun Coromines-Terradoren hori.

3. Datu fidagarriekin jokatu behar da

Euskal toponimia ahal den ongienik ezagutu behar da; maiz, zorigaitzez, honen berri handirik jakin gabe idatzi dira artikulua. Adibidez, Menéndez Pidalek *Javier-Chábarri* buruzko lana egin zuenean (1948 eta 1949) aski eza-guera partziala zuela ikusten da, datuak, toponimoak handik eta hemendik hartzen zituela, autoreren batek argitara emandako lanen batean azaltzen zirenetarik, sistematikotasunik gabe betiere. Egia da Penintsula osoko eta kanpoko datu askoren ezagutza bazuela, baina, gureari datxekionez, sakontasuna eta aipatu sistematikotasuna eskas ditu.

4. Euskal onomastikaren funtzionamenduaren berri jakin behar da

Euskal onomastikaren funtzionamendu normala zein den eta nolakoa den jakitea ezinbestekoa da. Corominesek (1955: 302) Pirinioetako *Certascan*-ek eta *Tavascan*-ek euskarazko *azkan* ‘fi’, ‘final’ dutela erraten du; gehi dezadan garbi dioela (ibid., 301) Andorrako behialako euskara eta egungoa aski desberdinak diratekeela:

Cal afanyar-se a advertir que en aquesta qüestió cal anar amb peus de plom, perquè la llengua pre-romana dels nostres Pirineus, encara que tingúes elements comuns amb el basc, devia ésser diferentíssima del basc modern tal com el coneixem avui, i àdhuc també força diferent del basc antic, pare del basc actual, tal com degué parlar-se a Bascònia en l'època romana. La semblança dels parlars de la Catalunya romana que podríem anomenar de tipus bascoide, amb el basc modern, no devia ésser més gran que la del nostre català amb el francès o el romanès.

Beranduagoko beste lan batean (1961: 114) baieztapen hau Ekialdeko eta Erdialdeko Pirinioetara zabaltzen du. Ez dakit ongi zertan oinarritzen den hau errateko, toponimian ez bada, eta orduan argudio zirkularra erabiltzen ari da, leku izenak aztertzean aipatutako ustekaria ezartzen ari baita.

Nik behinik behin ez dut sinesten, gure toponimia ikusirik, Andorrako leku izenean *azken* dugula, bereziki *azken* hori *atzen*-etik atera bide zelako eta hau, Mitxelenak nahi duen bezala (OEH III, 276-277), *hatz* ‘aztarna’-tik. Bilakaera *Arizteta* > **Arizteta* (cf. *bertze* > **berzte* > *beste*, *ortzegun* > **orztegun* > *ostegun*) > *Arizketa*-n edo *(G)*iputz* + -*oa* > **Gipuztoa* > *Gipuzkoa*-n dugunaren parekoa da (cf. horzkarien eta belarren arteko nahasketarako, 1150eko *erret ihera* < **errek ihera* < *errege ihera*). Beste oztopo bat, *azken* forma *atzen*-etik atera datekeela aintzat harturik, hau toponimia zaharrea ikusi nahi izatea da, normalki *gibela* agertzen delako, edo bestela, *oste* mendebaldean, oraingoan Ameskoagoiena ere barne dela. Egia da, hala ere, Mitxelenak FHV-n (70) *azken* / *azkan* pareaz ari delarik lehena komuna dela dioela eta bigarrena Bizkaikoa eta Erronkarikoa, eta lan horretan berean (219) *azken* forma *hatz*-etik atera delakoa ez dakusala erabat garbi: «Cf. *azken* ‘último’, acaso superlativo de or. *hatz* ‘rastro, huella’, occid. *atze* ‘parte posterior’». Guztiaz ere, *azken* hitza gure toponimia zaharrea ez da ohikoa.

Bestalde, *Certascan*-en oinarrian *zarta* ‘tany, vareta, branca’ dagoela uste du Corominesek; erranahia ‘final de la vegetació’ dateke. Horrek, gainera, autorearen irudiko betiere (1955: 302), Andorrako bereko *Certers* ere azalduko luke. Puntu honetan gogoan hartu behar da *zarta*, OEH-ren arabera, mendebaldekoa dela, Gipuzkoa-Bizkaietakoa, eta Andorran kausitzea franko bitxi iruditzen zait, honetan ezintasunik ez bada ere, menturaz. Beste etsenplu bat lan bereko *Arànsers* da (1955: 304); hau *Arans*, *Ransol*, *Arinsal* eta Pallarsko *Aransis*-ekin batean *arantze* edo *arantza* ‘planta espinosa’ hitzaren bidez azaltzen du, eta badaiteke hola izatea, tarteko pausoak eta benetak frogak eskas ditugula iruditzen bazait ere, baina *Arànsers* hori, IX mendean *Aranzar* zena, *Arantza-re*-tik eratortzeari, hots, *arantza* + *genitibo*-tik eratortzeari gehiegixko irizten diot. Zergatik ez zuen Corominesek, *Aranberri* ezaguna dela kontuan harturik, egiantz handiagoa duen *haran* + *zahar* proposatu, adibidez?

Beste adibide bat: Corominesek (1955: 304) *Canillo* eta *Ordino*, *Canillave* eta *Ordinavi* dokumentatzen direnez gero, euskarazko *-be* ‘sota’-rekin lotu nahi ditu (*Etxabe*, *Mendibe*, *Altube*-n dagoenarekin, maisu katalanaren erranetan), eta irudi luke hola jokatzea zilegi dela. Zilegi ez dena, ordea, *Ordinavi* horretan *Urdin-a-be* ‘sota els grisos’ ikusi nahi izatea da, euskaraz *Urdinbe* izanen baikenuke usaian holakoetan, egun *mahaipean* edo *aulkipetik* erraten den era berean. Egia da zenbaitetan artikulua ihartua dagoela eta, konparazio-ne, *Astigarribiakoa* erraten bide dela, baina kasu horretan Corominesen azalpenak bestelakoa izan behar zukeen (‘sota Urdina’ adibidez).

Ondoren, lan berean ematen dituen azalpen etimologikoak ez dira, nire irudiko, batere ohikoak gure toponimian, eta lehen ere, dokumentuek erakusten diguten heinean, ez dira izan: “*Erts* = basc *ertz* ‘caire’, ‘vorera’ (d’acord amb la situació d’aquest llogaret prop del riu d’Arinsal); *Isórt* (*estany* i *coll d’*, dalt del Serrat) = basc *isurki* ‘vessant’ [...] *Sorteny* (vall a l’E. del Serrat) = basc *zorten* (també *surten*) ‘branqueta’ (o relacionat amb *zorta* ‘gota gran, petita quantitat de líquid’)”. Honelakorik ez da azaltzen gure toponimian, eta, beraz, azalpen etimologiko horiek ezin dira ontzat hartu. Gauza bera gertatzen da beste lan batzuetan; adibidez, Farrerako *Bescarga bizkar-ga* ‘sans sommets, sans collines’-tik eratortzen du, Cerdanya aldeko *Baltarga* menturaz *biltar-ga* «derivat privatiu de *bildar* ‘chose infime, grain de sable’» (1955b: 411) dela dio eta toponimo mordoxka batean *oia* ‘bercail’, ‘artegia’ ikusi nahi du (*Nauja* < *naba oia*, errate baterako). Euskal toponimia aztertutik, ordea, ez dagoenean oinarritutako leku izenik badenetz ez dakit, baina izatekotz ere guti dirateke, eta *oia* horren lekukorik ez dago gure toponimian, nik dakidala (*saroi(a)* < *sare* + *obe* (+ *-a*) ote zuen gogoan maisu katalanak?).

Ezin ditut Corominesek bere lan ugarietan aipatzen dituen ustezko euskal toponimo guztiak iruzkindu; azpimarratu nahi dut, hala ere, egungo euskaran eta euskara historikoan bitxiak, are ezinezkoak diren itzuliak eta eraikuntzak ezin direla onartu Pallarsgoieneko edo Andorrako euskal toponimiaz mintzatzerakoan. Egia da drolekeriak ez direla gutxi gure leku izendegian, baina neurgailutat Euskal Herriko toponimia erabili behar dela zalantzarik ez dago, nahiz gero tokian tokiko ezaugarri bereziak onets daitezkeen, beharrezkoa denean. Ondorioa argia da: euskal toponimian aurkitu ohi duguna hartu behar da aintzat toponimoen euskalduntasunaz mintzatzeko denboran.

Puntu honetan nabarmendu nahi dut, kontu pisu handikoa delako, euskal toponimia, Erdi Aroko dokumentazioan, hasiera-hasieratik, azken mendeetan eta egun dugunaren pare-parekoa dela, ez dela holako alderik antzinakoaren eta gaurkoaren artean. Honek, jakina, ez du erran nahi toponimo zahar guztiak iturriko ura bezain garbiak izanen direla: batzuetan atzizkia da ezaguna, beste zenbait aldiz oinarria edo toponimo osoa, inoiz adiera ilun zaigu baina leku izena, argiki, euskaratikakoa da... Gerta daiteke, jakina, euskaraz ibili izan diren toponimoen artean maileguak izatea, ondoko hizkuntzetarik hartutako hitzen bat agertzea; hau ez da estonatzeko, baina, erran bezala, egungoaren iruditsuko sistema baten, multzo trinko baten aitzinean gara. Adibidez, 1002an (Martín Duque, 1983, 14, 32. or.) *Ochambeta*, *Mutiloa*, *More Bilibilea* ditugu Iruñerrian, 1007an *Oyar Zaual* alderdi horretatik ez urruti (Goñi, 1997, 6, 27. or.), 1014an *Izurun*, *Anaizoz*, *Albizungo*, *Ançieta*,

Zurzaiate, *Bagoçu Larraburu*, *Loizta* eta *Zopite* Gipuzkoan (Martín Duque, 1983, 16, 36. or.), beranduxeago *Hodieta* (ibid., 1024, 22, 50. or.), *Zeia Zaharra* (ibid., 1032, 23, 52. or.), *Yçiçuloa* (ibid., 1034, 26, 57. or.), *Zalvrribar* (ibid., 1042, 32, 63. or.), *Ataburu* (ibid., 1049, 45, 78. or.) Nafarroan, eta aski izan bitez horiek, erakuskariak nahi bezainbeste luza baitaitezke.

Hau Corominesen interpretazio frankoren kontrako argudioa da, argi eta garbi, ez dakigulako garai bereko Pirinioetako beste leku batzuetan, toponimoak euskarazkoak baziren, zergatik ez diren aipatu dugun sistema horretan sartzen, zergatik diren desberdinak. Beste batzuetan zaila da hizkuntzalari katalanaren azalpen etimologikoei, baztertzeko moduan, kontra egitea, baina ni ez naute gogobetetzen, euskaraz ohikoak ez diren gauzak azaltzen dituelako; erraterako, haren arabera (1961: 115) Espainiako Cerdañako *Aja* antzina *Āginum* zen eta hau euskarazko *hagin* zuhaitz izenarekin lotu beharra da. Baliteke, nahiz gure toponimian biziki arraroa den *hagin* hutsa, beste gehigarririk gabe, kausitzea. Frantziako Cerdañako *Baiamide* behiala (829. urtean), *Baiamite* zen, eta ikertzaile katalanaren irudiko *Meiabide* ‘chemin de l’étroit, de la gorge’ formatik aterea da, metatesiz. Baliteke hola izatea, baina zaila irizten diot, erdiko *-a-* horrengatik, besteak beste. Huescako *Lasquarri* (< *Alascor(re)*, *Alasquar*) *aratz*-en eratorria izatea ere ez da erraza, ustezko *-r-* > *-l-* disimilazioa burutu gabeko aldaerarik ez dagoelako eta *aratz*, *arats* gure toponimian bigarren lekuan azaldu ohi delako, izenondoa izanik. Beraz, ‘(endroit d’un) rouge éclatant’ adiera hori ezin onztat hartu.

Tarteka Euskal Herriko toponimo batzuekiko esteka finkatzen du Corominesek (ibid., 115-116) (*Lavascort* < *Navascort*, *Navargüé* < *Nabar-coi* vs. *Navascués* / *Nabaskoze*), baina, kasu honetan, duda egiten du *naba* ‘basfond au milieu de montagnes’ edo *nabar* ‘tacheté, bigarré’ ote den. Inoizka (ibid., 117) dokumentatu gabeko oinarriak proposatzen ditu, erraterako *Lakörr* forma *Llaguarres* herri izenarendako (*Illacorre* 996an), Menéndez Pidalen *gorri* eta *legor* etimologiak arbuia eta ondoan. Oinarri horrek *pendant* egiten du, ikertzaile katalanaren arabera, euskarazko *lakar* ‘gravier’, ‘asperité du terrain’ delakoarekin, *malkor*-ek *malkar*-ekin egiten duen modu berberean.

Ravier-ek (1963: 71) lokatiboaren ezaugarri sudurkaria proposatzen du euskarazko *-en* inesiboa eta *-en* atzizki toponimikoa azaltzeko, baina, adibidez, aztertu behar genuke euskararen ikuspuntutik atzizkia *-en* den edo *-n* hutsa, *etsen*, *Bilbon* eta bestetan daukaguna alegia. Bestalde, egia da zenbait toponimo, dokumentazioan, inesiboan azaltzen direla, «berriemaile» deituko dugu-

nak hola eman zuelako eta eskribauak hola bildu, eta *-eta* atzizkiaren gaia ere hor da, baina, beste gisan, irudi du inesiboa toponimoetan ez dela finkatu, zenbait aztarna (*-ea* bukaera toponimikoa eta oikonimikoa, konparaziorako) utzi baditu ere. Euskararekin bat ez datorrena «pirenaiko»-tzat hartzen ahalko dugu, zahartzat, nahi duguntzat, baina ez euskalduntzat, ez baitugu horren frogarik izanen.

5. Tokian tokiko toponimia sakonki ezagutu behar da

Lekuan lekuko toponimia hagitz ongi ezagutu behar da, bestela gerta baitaiteke ikertzaileak zerrenda batean, mapa batean aztertzen ari den atzizkiaren, oinarriaren, izenaren antzeko beste bat aurkitzea eta bere lanean baliatzea, antzeko horren inguruan, hurbilean, dauden gainerako leku izenak kontuan izan gabe, eta, jakina, honela jokatzeko bizi arriskugarria da, handik eta hemendik hartutako toponimo horiek ikertzailea aztertzen ari den sailaz bestelako multzo batean sarturik egon daitezkeelako. Adibidez, eta ulertzeko moduan erranen dut, J. Velazak (1995: 213) *Lacubegi* teonimoak iberiar itxura duela dio, nahiz lehenago Castillok (1992: 124) latineko *lacu*-k eta euskarazko *begi*-k osatutako hibridoak ikusi eta *Lacu-* ‘erreka’, ‘urgunea’, ‘putzua’ adierazten dituzten toponimoetan ohikoa dela erran. Gorrotxategi (1995: 223-225) zalan-tzan dabil iberiartzat eman edo euskalduntzat; autore honen arabera lehen osagaiak paraleloak ditu Palamósoko *laku-arkis*-en eta Saguntoko *biu(r)-lakos*-en, baina honek ez du erran nahi iberiar estratuko izena dela; bigarren osagaia, aldiz, euskarako *begi*-rekin lot daitekeela iruditzen zaio, lehenago Castillori bezala, edo *behi*-rekin, harrian behi burua ageri dela kontuan edukita. Núñezek (2004: 174), berriz, aurreko ikertzaile horien datuetan oinarri harturik apika, eta seguruenik idazkunehizkuntzatik bestelako ondorioak atereaz, erraten du iberiera Uxue inguruan mintzatu zela.

Hemen gogoan hartu behar da *Lacubegi* hori *Laku* izeneko dermio urtsuan aurkitu zela, hau *Lakumulatu* zabalagoaren barnean dela, Uxuen berean *Lakubeli* izeneko aurkintza ere badela eta *laku* euskal toponimian aski ugaria dela. Castillok ongi dioen bezala, gurean leku urtsuak izendatzen ditu, ez erre-kak eta putzuak, baina hidronimoa da betiere.

Bistan da Pirinioetako, mendilerro osoko euskal toponimiaz mintzatzea, aurrekoa kontuan edukirik, txoil zaila dela, herri eta ibar bakoitzeko toponimia ongi aztertzeke denbora asko behar delako. Baina hola egin behar, beste gisan anitzetan itxurek engainatuko baikaituzte!

6. Toponimoa bere osotasunean aztertu beharra dago

Ravier-ek (1963) *-en* euskal inesiboa ikusi nahi du *-en* bukaera duten Piri-
nioetako leku izenetan, oinarriak aztertu gabe ordea, *-un* toponimikoaren eta
euskarazko (*g)une* ‘espace’ izenaren arteko esteka arbuiatu eta ondoan (ibid., 69):

Cette objection (*-otze* atzizki toponimikoan Menéndez Pidalek proposatzen
zuen ‘hotza’ ikusi nahi ez izatea) [...] nous la ferons à propos de (*g)une*, ajoutant
que conclure à la présence de ce terme dans des noms comme par ex. *Lescun*, *Orcun*
équivalait à admettre l’invérifiable et nous engage sur le chemin de ce comparatisme
purement formel et “externe” véhémentement dénoncé par Caro Baroja.

Nik uste dut oinarriak kasu guztietan aztertu behar direla, identifika dai-
tekeen osagairik ageri ote den ikusteko, gure azalpenetan maingu ibiliko ez
bagara. Erran nahi dut berrekailua ez ezik, oinarria ere identifikatu behar du-
gula, edo saiatu segurik bai. Honek, jakina, euskarak orain duen edo inoiz izan
duen altxor lexikoan agertu behar du; bestela toponimia ongi aztertu beharko
dugu eta ikusi ea oinarri hori duten beste toponimoek halako errealite geogra-
fiko jakin bat adierazten duten, ondorioa atera ahal izateko. Bestalde, *-un*
bukaera duten toponimo horietan ez dugu gehienetan ‘gunea’ izanen, behar-
bada, baina bistan da hau ezin baztertu daitekeen azter eta azalbidea dela.

7. Elkarlanaren premia

Zaila izanen da, bestalde, prestakuntza osoa, inplikaturik dauden hizkuntza
guztiak eta berauen bilakaera eta jokaera ongi ezagutzen dituen aditurik aurkitzea:
euskara, iberiera, hizkuntza zeltikoak, okzitaniera (gaskoia, biarnesa), frantsesa,
gaztelania, aragoiera (Nafarroako erromantzea) eta katalana jakin beharko litzuzke
hainak, latinaz landara. Corominesek (1955: 305) honela dio: “És absolutament
indispensable, si es vol arribar en algun resultat segur, de posseir coneixements
sòlids de moltes llengües i molt diverses, i aplicar-hi una tècnica tan difícil i deli-
cada com la de la Lingüística”. Bistan da hori bera bezalako gutxi batzuen esku
dagoela; beste irtenbide bat, hemen proposatzen dudana, elkarlanean aritzea da.

8. Antroponimia ezagutu behar da

Antroponimia —etorki guztietakoa— ongi ezagutu behar da, eta bereziki
Euskal Herrikoa. Hemen ikerketa atzeraturik dabil; dokumentu bilduma

franko argitaratzen ari dira urte hauetan, baina horiek aztertu egin behar dira eta dauden datuak atera, eta denbora behar horretarako ere. Atzerapen honen ondorioa da, nik uste, eta adibidez, Rohlfsek (1952: 236) Lapurdiko *Brisous* / *Beraskoitze* (Caroren arabera, sic) *Verus*-etik ateratako *Veriscus*-etik erator-tzea, eta galierako *-isco* atzizkiarekin (*Lodiscus*, *Mariscus*, *Petriscus*, *Vertiscus*-en dagoenarekin) lotzea. Hau ez da zuzena, argi dagoelako *Velasco*-tik atera den *Berasko* ongi dokumentatua dagoela *Beraskoitz*-en oinarrian, Nafarroa Ga-raiko *Beraskoain*-en dagoen berbera.

9. Ikertzaile batzuen presa saihestu beharra

Presa, lehia ez da ona ikerketan. Azkar joan nahi izan dela azpimarratu nahi dut atalño honetan; ikertzaileek toponimo sailak hartu dituzte (ikus be-heitixeago) eta goitik behera aztertu, baina nire irudituan lehenik prestalana egin behar da, monografia anitz behar ditugu, tokian tokiko ebakerak eta to-ponimoen lekukotasun historikoak ongi ezagutu behar dira ondorioak atera-tzen hasi aitzinetik. Gorago adierazi bezala, toponimoa sarturik dagoen saila ere ezagutu beharra da, sailik bada behintzat, bai eta izendatzen duen erreali-tatea ere. Ez dut erran nahi dena argitaratu arte ezin dela deus idatzi, hola aurrera eginen ez genukeelako, baina ohartu behar dugu kasu frankotan gure azalpen etimologikoak behin-behinekoak direla, guk eraikitako etxeak zimen-du ahulak dituela, edo, gutxienez, ez dituela behar bezain zindo eta sendoak.

10. Dokumentazioaren garrantzia

Aitzineko atalñoarekin lotura eginez, nabarmendu nahi dut dokumenta-zioa ezagutzea arras garrantsitsua dela, bestela, izen baten egungo aldaera bes-terik ezagutzen ez dugunean, "... anem bastant a cegues i amb gran risc d'equivocar-nos del tot" (Coromines, 1955: 306; ikus, orobat, autore beraren 1958: 7). Jakintsu katalanaren arabera ondoko eskualdeetako toponimia ere ongi ezagutu behar da, alderaketak egin ahal izateko, leku izenak argitzea hel-buru. Nolanahi den, autore honek berak, sarerik gabeko itzulipurdi bat edo beste ere egiten du airean, bere ibilbide etimologiko luze eta jorian. Adibidez, Kataluniako *Salàs* herriaren izena azaltzeko tenorean zenbait euskal toponi-motan (*Sare*, *Zaldibar*, *Zaraitzu* = *Salazar*) ageri den *Sal*- erroa aipatzen du (1961: 113), baina *Salazar*, *Zaraitzu*-ren kasuan behintzat dardarkaria dugu zaharrena (*NHI*, 125), eta albokoa segurrenik disimilazioz sortua izanen da.

Sare, *Sara* euskaraz, beharbada albokodun aldaera batetik atera dateke, baina hori frogakizun dago oraino, aldaera dokumental zaharretan beti dardarkaria dagoelako, nik dakidala. *Zaldibar*, *Zaldibia* bezala, *zaldu*-tik atera izanen da, Mitxelenaren arabera (AV, 598), osagai hori dutenak *zaldi* dutenatarik bereizte aise ez bada ere.

Bestalde, zenbait lanetan erraten denaz batek ez daki zer pentsatu, lekukotasun dokumentalik ez agertzearekin azalpen etimologikoak lanbro tartean gelditzen direlako. Adibidez, Féniétarrek (1992: 63) Ossau ibarreko *Bagès* toponimoaz mintzatzean erraten dute latineko *fagus* duela etorki, euskarazko *bago*-ren bitartez, eta bukaera hizkuntza honetako *-etz* atzizki multzokaria dela. Nik atzizkiaren azalpena ez dakusat garbi, eta erroarena ere, agiri testigantzarik izan gabez, ilunxko zait. Beste anitzetan tarteko lekukotasunak falta dira, azalpen etimologikoa justifikatuko luketen aldaerak; erraterako, Corominesek (1955: 304) *Arinsal* (*Arensau* ere ageri da dokumentuetan) *Aranzadi*-tik eratorri nahi du, eta *Beixalis* eta *Bixesarri* euskarazko *basa* ‘desert’, ‘silvestre’, *baso* ‘bosc’ hitzaren txikigarria bide den *baxa*, *baxo*-tik. Badaiteke hau hola izatea, batik bat bigarrenaren kasuan, hor, agiriek lagunduko balute, beharbada *sarri* ikus bailiteke, baina dokumentazioko testigantzak falta dira.

11. Eremu zabaletako toponimiaz hitz egiteak duen arriskuaren gainean

Eskualde zabalak hartzeak dituen arriskuak ere nabarmentzekoak dira, hagitx zaila delako eremu handi bateko leku izenak ongi ezagutzera. Adibidez Hubschmidek (1960: 471-472) Uxueko *Aristuriaga* biltzen du, *Aristuziaga* zuzenaren orde, eta beste norbaitek —ez dut gogoan ikertzailearen izena— *Ergozena* aipatzen du, *Ergoiena*-ren ordainez.

Are arriskugarriago iruditzen zait Fouchék 1947ko lanean duen aritzeko modua, eskualde zabalak bakarrik ez, mundu erdia hartzen baitu, Asia eta Indiatik Iberiar Penintsularaino, Eskandinavian eta Italian barna igaroz, *M*L* eta *T*K* oinarriak (eta aldaera ugariak) aztertzean. Hain lurralde zabala denez gero, nik ez dakit zer pentsatu, edo, hobeki erran, gaitza zait holako eremu izugarrian mintzatzen diren eta mintzatu diratekeen hizkuntzetan holako bat-etortze harrigarriak —hau ere erlatibizatu beharra dago, mota askotariko hitzak azaltzen direlako— kausitzea. Aldaeretakoa bat da, adibidez, «dans la région cantabrique» dagoen *Monte Sayoa* delakoa, **Sagiona* batetik eratortzen duena. Nik ez dakit zer mendi den hori eta «eskualde kantauriar hori» zein den ere ez, baina susmoa dut Nafarroako *Saioa* mendiaz ari dela. Egia da

bokal arteko sudurkaria eror zitekeela, baina *-gi-* > *-j-* bihurtzea ez da euskarari hain erraz azaltzen, eta bestalde, dokumentaziorik erabili gabe jokatzeko du, lasai ederrean. Aipatu behintzat ez du egiten. Jakina, holako eremu ikaragarri zabaleko toponimo guztien dokumentazioa aztertu behar izan balu galtzak bete lan izanen zukeen eta bizi osorako zeregina. Beste adibide bat (ibid., 18-19), beste «esteka» makur bat, *teka*, *deka* oronimoaren ahaidetako «*Cap de Socoa*, près de St.Jean-de-Luz» hartzea da.

Gure egunetatik hurbilago ere ematen dira holako edo antzeko azalpen ausartak; adibidez, Morvanek (2004: 30) *Juxue*-z dio **kuk* ‘hauteur’ hitzaren (batez ere Euskal Herriko) **juk* «aldaera ahuldutik» atera dela, eta baliteke hola izatea, baina toponimoaren dokumentazioak eta euskarazko aldaerak *Jutsue*-ra gakartzate, hots, afrikatua duen aldaerara (ikus Salaberri, 2004: 207). Bestalde, *Jokoberro*-n Siberiatik heldu omen den **kuk* hori ikusi nahi izatea soberaxko iruditzen zait, gure mikrotoponimian hainbeste *Balankaleku*, *Pilotajoko*, *Pilotaleku*, *Pilotasoro*... eta hainbeste *berro* izanda. Ideia, nolana ere, Rostaingengandik hartua du Morvanek, Orpustan (1990: 79-80) bidelagun, edo, hobeki erran, bide erakusle, duela.

12. Ikertzaileok aurreiritziak alde batera utzi beharraz

Denok ditugu holakoak, neke da saihestea. Arriskua da antzekoak diren toponimoak beti bide beretik azaltzea; erraterako, Caro Barojak *Materiales* ezagunean antroponimoen bidez azaltzen ditu direnak (gehienak) eta ez direnak (bakan zenbait). Zalantzazkoen artean *Aquiturraïn* edo *Aquiturriain* (1945: 68) eta *Larrain* (ibid., 73) aipa ditzakegu, eta antroponimikoak ez diren erakusgarritako *Echano* (ibid., 87). Rohlfsek ere badu holakoren bat *-ós / -ués / -oz, -otze* atzizkiaz diharduen 1952ko artikuluan. Adibidez, *Baretous*-en antroponimoa dakusa (*Baritto*), Lopez-Mugartzak erakutsi duen bezala (2008) *vallis*-en txikigarri bat besterik ez bada ere. Hizkuntzalari alemanak *Biskarosse*, *Biscarrosse*, *Biscarrués* euskarazko *bizkarra* ‘le dos’-en bidez azaltzen du (ibid., 235), eta honela galdegiten dio bere buruari: “Est-ce qu’on peut supposer l’existence d’un surnom **Biskarra?*”. Hemen egokiagoa da nire iritzian *-o(t)z* tokizko atzizkia ikustea, B. eta J.-J. Féniék (1992: 16) egiten duten moduan.

Orpustanek ere lekuzko adiera ematen dio aipatu atzizkiari (*Bardos / Bar-doze*, kasurako, “lieu de terre argileuse”, “lieu où abonde la terre argileuse” dela dio; 1990: 21), justifikatu gabe, ordea. Ikertzaile honek azalpen deskribatzaileak hobesten ditu antroponimikoen aldean, eta badaiteke batzuetan hiz-

pidean egotea, baina duen aurreiritziak urrunegi darama, garden-gardenak diren kasuetan ere deskripzio bidea lehenesten baitu (*Armendaritze* eta *Beskoi-tze* azaltzean, konparaziorako; *ibid.*, 97, 23). Bide bertsutik dabil, maisuaren urratsetan, Morvan jauna (2004).

13. Toponimo sailen gainean

Meyer-Lübkeren 1923ko lanetik aitzina, ziurtasunarekin jokatu ahal izateko, toponimo sailak xerkatzen dira, ez bakarturik daudenak. Honela dio suitzar ikertzaileak: “La determinació, però, dels noms originaris d’aquests pobles (iberiarrak edo euskaldunak eta zeltak) no s’ha de fer buscant-los en un diccionari basc o celta i traduint-los, sinó, principalment, reunint tipus, d’una manera especial sufixos, que es repeteixin moltes vegades, els quals són, potsèr, ja transmesos des de l’antigor” (2). Corominesek (1955: 302) eta Gorrotxategik (1997: 19, 22-23) ere onesten dute, jokamolde hau. Hizkuntzalari katalanaren arabera (1961: 111) sailak bukaerarekin, aurrizkiarekin edo adiera jakin batekin antola daitezke.

Orokortzeak, ordea, gorago ikusi dugun moduan, arrisku franko ditu; lurralde zabala hartzearekin segurtasuna irabazten da alde batetik, baina zehaztasuna galtzen bestetik, eremu handiak sakonki ezagutzea arrunt zaila delako. Adibidez, Rohlfsek (1952: 238) *Egiës*-en oinarrian beharbada *Egus* edo *Ecus* galiar izena dagoela dio, baina bistan da hori ezinezkoa dela, alemanaren ustea, hots, ð zahar batek diptongatu duelakoa, oraingoan, ustela delako erabat, dokumentazioan beti *Egues* azaltzen baita. Arrazoibidea hau izan da zenbaitendako: atzizkietan *-ós / -oz, -oze / -ués* parekotasuna dagoenez gero, *-ués*-dun leku izen guztiak haietatik atera behar dira. Hau arrazoinamendu makurra dela dudarik ez dago.

Seguyk dio (1951: 220) Espainian erdarazko izenen euskal baliokideen finkatzea ð diptongatzearen aurretik burutu dela, baina *-ués*-dun formak euskal eremuan *-oz*-dunen aldamenean azaltzen direla, mapetan behintzat (220); Rohlfsek (1952: 254, 1955: 9) *-ués*-dun horiek Iruñeraino iristen direla dio eta hemen euskarazko *-oz*-dunekin nahasten direla. Hau, ordea, ez da hola, edo ez osotara behinik behin, Menéndez Pidalek nahi duenaren kontra (1918: 233) *Egues*, *Garrues* eta *Sagues* toponimoen lekukotasun zaharrek garbi samar (ez kasu guztietan berdin) erakusten dutelako ez direla *Gallués / Galoze*, *Navascués / Nabaskoze*, *Nardués / Nardoze* eta irudiko pareen multzokoak. Izan

ere, azken bikote hauek berandu arte gorde dira eta gerok belarriz biltzeko aukera izan dugu.

Hemen, jakina, beste batzuetan bezala, itxurek engainatzen eta bide okerretik abiarazten gaituzte. Egia da, alabaina eta *Garrues*-i doakionez, Leireko XI. mendeko dokumentazioan *Garoiz*, *Garoix*, *Garros*, *Garruos* ere agertzen direla, *Garrues* ez ezik (ikus *NHI*, 140). Ez dakit zer neurritan diren jatorrizko formak *-o-*, *-oi-* duten horiek, alegia, zer neurritan ez diren *Vilatorra* “Villatuerta”-ren moduko latintzearen ondorio, honelakoak Leireko agirietan beretan ere azaltzen direnez gero. Aintzat hartu behar da, gainera, euskaraz, XVI. mendean *Garruesondoa* aurkitu dugula: «*Una p^a (pieza) en el ter^o (término) de eusa llamada Garrues ondoa [...] afrontada con Cam^o (camino) real*» (Eusa, 1573, Atarrabiako protokoloak, 6, 11). Hau munta handikoa da, *Garrues*-en kasua Gaskuñako *-ós* / Aragoiko *-ués* / Euskal Herriko *-o(t)z* baliokide multzoan sartzen delako, hots, honetan (eta *Egüés*-en, *Sagüés*-en) oinarriturik *-ués*-dun toponimoak Iruñeraino iristen direla erran izan delako (Menéndez Pidalek aipatzen du lehen aldiz, 1918: 248, Rholfssek gero, goraxeago ikusi moduan), eta hemen *-oz*-dunekin nahasten direla.

Mikrotoponimia ikusirik badirudi *Egues* eta *Sagues* ere euskaraz erabili direla eta forma zaharrak direla: *Eguesbidea* (Alzutza, 1638, Uharteko proto., 60), *Eguesvidegañeoa* o *Celayacoa* (Urotz, 1833, Agoizko hipot., 2, 266); *Eguechalorra* (*Eguetsalorra* segur aski, Iheltz, 1860, *ibid.*, 6, 410), *Saguesgibela*, *Saguesgo sotoaldea* (Gazolatz, 1549; Lizarrako proto., 2). Gai hau hobeki aztertu beharko da, duen garrantziagatik, baina nik erranen nuke Séguyk eta Rholfssek jasotzen dituztenez beste gisakoak direla aipatu Iruñerriko hiru herri izen horiek. *Sagues*-en kasuan Jaka aldean beste *Sagüés* bat izateak (Menéndez Pidalek aipatzen du, 1918: 234) Iruñerriko toponimoan aldaera diphongatua ikustearen alde hitz egiten du, baina *NHI*-n ikusten den bezala (149. or.) XII-XIII. mendeetako dokumentazioan *Sagoes*, *Sagoys*, *Sagues*, *Çagues* azaltzen dira Nafarroan.

Orokortzearen beste etsenplu bat Menéndez Pidalen 1940ko lanean (27. or.) opatzen dugu: hor Espainian *-en* (*-iano*, *-enu* dateke jatorria) atzizkia duten toponimoen artean *Orcoyen* eta *Oreyen* aipatzen ditu espainiar filologoak eta dio oinarria antroponimikoa dela, *Orcuius* lehen kasuan eta *Oreius* bigarrean. Jakina den bezala, gurean ugariak dira *-ain* (< *-ani*) eta *-ao* (< *-ano*) duten jatorri antroponimikoko toponimoak, baina aipatu bi leku izenen azken bokala erortzea ez da aise azaltzen (**Orcoieno*-tik **Orkoieo*, **Orkoio* edo antzeko zerbaitek genduz euskaraz, eta **Oreieno*-tik **Oreieo*, **Oreio* edo), eta

bestalde, sail osoa ukitu nahi bazuen *Elduaien* eta *Labaien* ere sartu behar zituzkeen, gutxieneko kontuan, eta ez du hola egin.

Gorago aipatutako leku guztiak ezagutzeko zailtasunagatik, nonbait, Rohlf (1952: 241) bezalako hizkuntzalari zehatzak ez du aipatzen Nafarroako *Irotz*, Bielsako *Irués*-ez mintzatzean, dudarik gabe bazela ohartu ez zelako, bestela, haren teoriaren barnean, arrunt egokia baita. Bestalde, Corominesek (1961: 136) *Arr*-duten Pirinioetako topononimo ugariak *arri* 'harria'-rekin lotzen ditu (*Àrreu*, *Arrós*, *Arróse*, *Àrres*, *Arro*, *Arrés*...), Rohlfsen eta besteren proposamen antroponimikoak aintzat hartu gabe.

14. Toponimoak sail batean baino gehiagotan sar daitezke artetan

Zenbait aldiz leku izen batzuk toponimo sail batean sar ditzakegu, baina bestelako aukerak ere badira, beste multzo batean ematea, alegia. Kasu honetan dago aurreko puntuan bildu dudan *Irotz*, Nafarroa Garaiko Larraun ibarreko *Madotz* herria (< *Mandotz*) eta Jatsu Garaziko auzo baten izena den *Mandos*. Azken honendako Rohlfsek (1952: 243) proposatzen duen jatorri antroponimikoa dugu, baina baita deskribapenezkoa ere. Zaila da, hone-lakoetan, erabaki bat hartzea. *Madotz*, zernahi gisaz, *Mando* izeneko baten baserria-edo izan zitekeen hastean, eta gero herri izen bilakatu. Hemen, *Ilurdotz*-en gertatzen denaren antzera, latinetik ateratako genitiboa genuke, nahiz *Agoitz*, *Gasteiz* edo *Beraskoitz* toponimoetan ez bezala, bokal palatalik ez agertu bukaeran. Puntu honetan eztabaida *-tz* hori latinetik atera den edo Pirinioen inguruko atzizki zaharra, Mitxelenaren arabera *-otz* dena, dugun erabakitzea da. Segur aski biak izanen ditugu, zein toponimo batzuetan, zein besteetan, nahaste.

15. Fonetikaren munta eztabaidagai

Fonetika garrantzizkoa dela inork ez du ukatzen ahal, baina toponimo baten euskalduntasuna horretan bakarrean finkatzea eztabaida daitekeen gauza da. Argibidez, Coromines (1955: 303) *Caborreu* euskaratikakoa dela errateko itxuran edo hotsean oinarritzen dela dirudi; gero, bide horretatik, *Cabó* (< *Caboet* < *Cabodez*) eta *Caborriu* ere etorki berekotzat jotzen ditu. *Andorra*-ren euskalduntasuna ere modu horretara frogatu nahi du, eta honekin batean Espainian barrena, bereziki Pirinioetan, haren antza duten beste zenbait toponimorena ere (ibid., 303), besteak beste Euskal Herriko *Undurein*-ena, zein

xiv. mendean *Andureinh* idazten baitzen. Egun aski garbi dago honen oinarrian, Nafarroako *Indurain*-en bezala, *Indura* pertsona izena dagoela, eta *-ain* atzizki ezaguna; ikus Irigoien (1990: 22).

16. Euskal dialektologiaren eta izen toponimikoen banaketa-eremuen rola

Dialektologian biziro ezaguna da arkaismoak bazter eremuetako hizkeretan atxiki direla dioen teoria, eta, hortaz, arras garbi dago, gurean, mendebaldean eta ekialdean hitz bera agertzen denean ele hori, salbuespenak salbuespen, zahartzat har daitekeela. Bestalde, beti eta bakarrik Euskal Herriko mendebaldean ageri zaizkigun berbak Andorrako edo inguru hartako toponimia azaltzeko erabiltzea justifikaturik egon daiteke dokumentuek laguntzen badute, baina, beste gisan, hobe litzateke, nik uste, Iparraldean eta Nafarroan ditugun hitzak ibiltzea, logikak horixe eskatzen duelako, hemen matematikaren zehaztasunetik urrun bagara ere.

Pallarsko toponimo baten ustezko *f > p*- bilakaera euskarari bizkarreratzea (*Pont de Pine*-ren bigarren osagaia latineko *finis*-etik datorke; Coromines, 1961: 129) gehiegixko iruditzen zait, gure hizkuntzaren barnean pauso hori erdi-mendebaldekoa ohi delako. Orobat, eta hau gai potoloa da, betearazi duen orrialde kopuruari so egiten badiogu behinik behin, *Bisòrre* eta *Bisaúrri* euskarazko *besa-urri* ‘village de précipices’ formatik atera dela kontu egitea (ibid., 133), edo *Besora* (< *Besaura*) jatorriz *basa uri-a* ‘la ville du bois’ dela pentsatzea ez zait onartzekoa iruditzen, gurean *urri* aski mendebaldekoa delako. Hau orain hobekixe ezagutzen dugun Euskal Herriko toponimiarekin ere lot daiteke, hots, Zaraitzu-Erronkarietan eta Zuberoa aldean azaltzen diren izen toponimikoek, teoriar behintzat eta alde zuretik, izanen dute aukera gehien Pirinioetako beste ibarretan agertzeko. Logikak erraten digu zailago dela Euskal Herriko erdialdean azaltzen direnak aurkitzea, hemen ere ezinik ez izanagatik.

Irigoienek (1986: 202) uste du *Arbeost* eta *-ost* duten toponimoek (*Bagüeste*, *Bagüesta*-k, *Binueste*-k...), Rohlfsek pentsatzen zuenaren kontra, ez dutela zerikusirik *-osse* (euskaraz *-otz* / *-oze*) dutenekin, haietan *-oste* ‘parte trasera, posterior’ dagoela. Egia da Erronkari aldean mendebaldeko itxura handia duten *atxa* ‘haitza’ eta *gatxa* ‘gaitza’ daudela (cf. *Mendigatxa* deitura), baina *ostere*na kontu lexikoa da, ez fonetikoa, eta lehen *-oste*-a Arabako muga-mugako Larragoan azaltzen dela jakinik, nekeza begitantzen zait niri *-ost* horretan Iri-

goienek nahi duena ikustea. Gogoan har, gainera, *-ost-*dunek usu holakorik ez duten eta antroponimoetan oinarriturik dauden bestelako toponimoekin egiten dutela *pendant*.

17. Toponimo bat azaltzeko bide bat baino gehiago izan daitezke

Zenbait aldiz toponimo bera azaltzeko bide bat baino gehiago daude, bata euskarazkoa eta deskribatzailea, bestea antroponimikoa (*Irotz*, *Urrotz*...). Inoiz, dena dela, aski garbi dago euskarazko azalpena beste gisakoa baino aise hobe eta egiantz handiagokoa dela, kasu guztietan erabat segurua ez izanik ere (*Acenarbe*, *Sobrarbe*, *Campodarbe*).

Alvar-ek dio (1949: 30-31), oraingo *Cenarbe* aztertzean (*Acenarbe* lehen lekukotasunetan, 1055, 1071, *Acenarbo* 1090ean), bigarren osagaia *arbe* dela, eta hau, Fouchéren lan batean oinarrituz, ‘ura’-rekin zerikusia duten Frantzia aldeko toponimoekin ematen du, Haute-Garonneko *Arbas*-ekin-eta batera. Alvar-ek hor *arvum* ‘larrea’ pirenaikoa dagoela uste du eta dio *-o* > *-e* aldaketa kanpoko eraginari zor zaiokeela; izen hori bera dakusa *Sobrarbe*-n eta *Campodarve*-n, eta ez zaio onartzekoa iruditzen *-be* ‘bajo’ dugula erratea. Elkarketa modua ez zaio arrotz, Erromanian anitz direlako bigarren osagaitzat *-villa* dutenak; oinarria beharbada *Acenar* antroponimoarekin loturik dagokeela gehitzen du. Bukatzeko *arve* ‘curso de agua’, *arvum* ‘prado’ biek elkarrekin urruneko erlazioa izan dezaketela adierazten du eta, etsenplutzat, ‘curso de agua’ izatetik ‘valle, campo’ izatera igaro den *ara* hitza paratzen du. Zernahi den, eta oin-oharrean baizik ez bada ere, erraten du *Sobrarbe* eta *Campo de Arbe*-ren azalpena beste bat izan daitekeela, *Arbe* mendi baten izena delako, mendialdea zelaietarik bereizten duena, «aunque el nuevo valor de ‘elevación’ pueda haberse adquirido desde cualquiera de las dos bases *arve* y *arvum*». (ibid., 31). *Cenarbe*-k «azaltzeko zailtasunak» dituela aitortzen du ondorioetan (ibid., 34).

18. Euskal toponimia: Euskal Herritik hurbilago eta aurkitzen errazago

Euskarazko toponimo multxo bat nonbait azaltzen bada pentsa daiteke inguru hartan noizbait euskara mintzatu zela eta hau galdu ondoan leku izenak besterik ez dela gelditu. Hau da, erraterako, Arabako eta Nafarroako eremu zabaletan gertatu dena, bai eta, beste neurri batean, Bizkaiko mendebaldean gertatu dena ere. Beste kontua da Euskal Herritik kanpoko lurretan

agitzen dena aztertzea; logikoa da pentsatzea Euskal Herriko inguruetan (Huescan, Biarnon...) aztarnak gelditu direla, Akitania zaharrea kasurako, alderdi honetan aurkitu idazkunei esker baitakigu behiala euskara, edo honen aldaera bat, mintzatu zela bertan. Arazoa da holako ziurtasunik ez dugun eremuetan euskarazko hitzak ikusi nahi izatea, toki izenetan.

Hor dago, adibidez, hain aipatua izan den *ili* / *hiri*-ren kasu ezaguna, edo, beste maila batean, Menéndez Pidalék (1949: 3-5) *etxe* eta *exe*-n oinarriturik jasotzen dituen Soria, Girona, Castelló eta Valentziako «euskal toponimo»-ena. Ikertzaile honek Espainia aldeko eta Narbonenseko *ili*-dun leku izenak aipatzen ditu eta, *berri* / *barri*-z ari delarik, bigarrena mendebaldekoa dela dio eta lehena ekialdekoa, nahiz gero *barri* Huescako alderdi batean ere (*Banabarrre*, *Isabarre*) ageri dela adierazi, *berri*-k inguratutako eremuan hain zuzen.

19. Alegiazko berrekailuen karietara

Toponimo sailak aztertzeko garaian atzizki «mamuak», hola mintza bannaiteke, ikusteko arriskua nabarmendu nahi dut. Grierak (1950), erraterako, Meyer-Lübkeri (1923) hartu dion mordoxka koxkor bat aipatzen du (*-abis* edo *abe*, *-bite*, *-egia*, *-rr-*, *-arre*, *-ll-*, *-ar-*, *-al*, *-il*, *-ice* *-en*, *-ir-*, *-asca*, *-ay*, *-avo*, *-ano*, *-ine*, *-one*), baina, agerian denez, denak ez dira atzizkiak.

Beste kontua da toponimia berrekailuen jatorria zein den argitzea, eta eginkizun honetan, oinarria antroponimikoa den edo toponimikoa. Zalan-tzazko egoera horretan dago, konparaziorako, hainbeste orri betearazi dituen *-ui* delakoa; irudi du autore gehienek arabera haren oinarria antroponimikoa dela, baina Corominesek bederik (1955b: 411) zenbaitetan antroponimoez bestelako oinarria ikusi nahi du: *Corroncui* < *kunkur(ra)* ‘joroba, bosse’, *Lles-sui* < *lezoi* ‘tranchée’ (eta Aran ibarreko *Lés*, euskarazko *leze* ‘sima’, ‘abîme’-tik)... Besterik da Pirinioetako hizkera arrunteko hitzetan aurkitzen ditugun bukaerak latinaren aurrekoak diren eta euskararekin lotu behar diren edo ez zehaztea. Honetaz Rohlfs (1931) ikus daiteke, besteak beste.

20. Errepikatzearen indarra: ustezkotasunetik ziurtasunera

Behin baino gehiagotan ikertzaile batek toponimian ageri den izenen baten, toponimoren baten adiera aurkitu uste izan du (ikus lehen puntuan *Maladeta*-z dioguna) eta geroko ikastunek, azterketa kritikorik egin gabe,

hots, lekua eta izenaren nondik norakoak aztertu gabe, ontzat eman dute, halako moduz non errepikatzearen bortxaz «tradizioa» sortu eta nire ustez (biziki) zalantzazkotzat dena segurutzat ematen baitute. Etsenplu bat **urd* uszteko oinarriaren inguruan sortu dena da: Féniék eta Féniék (1992: 51) hone-la diote: «Quant à Urdos et Urdès (PA), l'étude récente de Michel Grosclaude les rattache à un radical aquitain **urd* (= plateau, replat)». Orpustanek (1990: 99), egin ohi duen bezala, izartxoak kentzen dio **urd* horri, eta are aurrerago doa, *Ortzaize* bere sorterriaren jatorria azaltzean *urd*-en *urz*- aldaeraz mintzo baita: «... c'est à dire qu'il faut très probablement y reconnaître la variante *urz*- de l'aquitain *urd*-, désignant des lieux plats et particulièrement des plateaux au pied des montagnes». Morvan oraingoan ere (2004: 45-46) Orpustanen bidetik dabil, gauza bera dio.

Baliteke hau hola izatea, baina zuhurtzia handiz jokatu behar da hone-lakoetan; nik, zenbait aldiz behinik behin, Séguyk (1949: 221) eta Rohlfsek (1952: 220) *Urdòs* eta *Urdués*-endako proposatzen duten azalbide antroponimikoa hobetsiko nuke, gauzak konplikatuak izanik bide bat baino gehiago ikus daitezkeen arren, baina betiere argudioak ongi arrazoituz, ez bestela. Corominesek (1955b: 411) *urde* ikusi nahiago du horren irudia den Kataluniako *Urdossa*-n (Montesclado, Lleida).

21. Pirinioetako euskal toponimoak

Hasmentan erran dudana bezala, ez da hau tokia Pirinioetan diratekeen euskal toponimoez banan-banan aztertzeari ekiteko, besteak beste horretarako ditudan baino aise ezagutza eta gaitasun handiagoak behar nituzkeelako eta neure burua huts egiteko arriskutan behin baino gehiagotan ezarriko nuke-elako. Gorago erran moduan, elkarrekiko lanaren beharra dakusat arlo honetan, lankidetzaz premia.

Lan hau apailatzeko Aragoigoieneko zenbait herritako mikrotoponimia jasotzen duen Elcocken 1949ko artikulua irakurri behar izan dut, eta gauzak sakonkiago eta polikiago aztertu behar baditut ere, bertan ez dut aurkitu argi eta garbi, ezbairik gabe euskalduna den toponimorik, adibidez egun Nafarroako Erdialdearen hegoaldean aurki daitezkeenen erakorik. Badira ozen ondoan (*n*-ren ondoan bereziki) ahostuntzen diren herskari ahoskabeak eta bokal artean ahoskabe dirautenak, baina ez dut uste honengatik toponimo horiek euskarazkoak direla erran daitekeela (*Chungar, Sandicosa, El Pundarrón, As Alduras, A punta acuta...*). Gainera, eta hein handi batean, Pirinioe-

tako ibar horietan ibiltzen den eguneroko hizkerarekin loturik daude toponimoak, eta hemen onomastikatik ateratzen gara. Badaiteke ele horietako batzuk jatorriz euskarazkoak izatea, baina lur labain eta irristakorrean mugitzen gara arlo honetan eta, erran bezala, onomastikatik kanpo.

Besterik da Elcocken lan horretan aipatzen diren toponimo nagusiak, Corominesek ere (1961) ahotan hartu eta erabili dituenak: *Berroy*, *Basarán*, *Ascaso*, *Ayerbe*... Ikertzaile katalanak dioena (ibid., 120) eta Elcockek biltzen dituen datuak ez datoz bat, Corominesek Pallarsgoiengan, aurkintza izenetan oraino herri izenetan baino ardurago, euskal jatorriko izenak dakuskielako: *Uribida*, *Urdossa*, *Urci*, *Uliviergo*, *Bescarga*, *Ausinsi* eta beste. Menéndez Pidalék, lehenago (1918), mordoxka aipatua zuen, noiz begi onez, noiz apika ez hain onez. Egia da hauetako batzuek belarrian «un air basque» dutela, baina ez dakit hau aski ote den euskalduntzat, euskaratikakotzat aitortzeko. Ez dirudi.

Corominesek aipatu lan horretan (1961: 119-120) ehunekoak ere ematen ditu herrien izenen kasuan, hots, ehuneko zenbat toponimo nagusi diren latinaren aurrekoak —ez denak, ezinbestean euskaldunak— zehazten du: Jakerrian etorki horretako 48 herri izen dakuski, denera % 67; Aragoigoieneko gainerako lurretan, Panticosatik Benasquera holako 155 kausitzen ditu, % 38. Ribagorzan % 35 dira, baina ekialderago, Pallarsgoiengan, % 54ra igotzen da berriro ere kopurua, Jakerriko heineraino, euskal itxura desberdinxearekin hori bai, beste euskalki bat egiten zelako seinale, hizkuntzalari katalanaren aburuz: “Ils ont un air aussi basque que dans la zone aujourd’hui frontalière du basque, seulement c’est une physionomie basque un peu différente, un autre dialecte”. Ehuneko eta kopuru hauetarik guzietarik ateratzen duen ondorioa (ibid., 121) da Pallars eta mendiez haraindiko Aran ibarra, ezbairik gabe, euskal uharte linguistikoa izan direla, baita Aragoi gehiena erdararatua zen denboran ere.

Erdaratze modua ere azaltzen du Corominesek (ibid., 122) Nafarroan historian zehar euskara nola galdu den ikusirik: lehenik goi mailako jendeak erdaldunduko ziren, gero herrietako bizilagun xeheak, beranduago mendiko herrixkak eta auzoak, azkenik baserriak eta artzainak. Garaiak ere finkatzen ditu (ibid., 123): Pallarsen errekonkistaren lehen bi edo hiru mendeetan galduko zen gure hizkuntza, lehenbizi hegoaldean, ondoren gero eta iparerrago, Aran ibarreko erdialde eta goialdera iritsi arteraino. Hau gutxi bazen, toponimian oinarri harturik, aipatu ibarretako hiztegia nolatsukoa zen ere argitzen du, berriz ere egungo egoerari, euskarari, erreparaturik: Pallarsgoieneko hiztegiaren erdia euskaratikakoa zen eta beste erdia erdaratikakoa, baina bigarren zati honetako aleak euskal fonetikaren arabera moldatuak zira-

tekeen. Gai hauetaz honelako zehaztasunarekin mintzatzea labaina da nire irudiko, ausarta ez ezik.

Bestalde, toponimoek, aragoieran eta katalanean agitzen denaren aurka, bukaerako *-e* edo *-o* ez galtzea (ibid., 124) ez dakit zer neurritan lepora dakioken euskarari; bokal arteko *-n-* erortzea argiagoa da (ibid., 125), baina nire ustez bide honetatik (bokal arteko herskariak ez ahostuntzea, hasierako albokoa palatala ez izatea, azentuatze batzuk, bukaerako dardarkaria indartzea: *ginestar* > *Ginestarre*, *siscar* > *Siscarre*, *toscar* > *Toscarri*, *villar* + *-õi* > *Villarrué*...) gehienez ere euskal sustratua badela frogatu daiteke, noizbait euskara mintzatu zela, ez (hainbeste) toponimoak euskaratikakoak direla. Garbi dago, adibidez, *Solau* 'solano' 'eguzkunea' edo *Plau* 'laua' ez direla gure hizkuntzatik atera, sudurkaria erori arren. Nolanahi ere, lan horretan berean (132-133) Pallars eta Ribagorzak hizkeretan baizik azaltzen ez diren bilakaerak aipatzen ditu, eta bistan da euskararen arrotzak direla (*-ll-* > *-z-*, edo *-s-* ahostuna, adibidez); beste hainbeste gertatzen da, gutxiago ukitzen badu ere, Aran ibarrean (*-ai-* > *-ei-*, *Vaqueira* ezaguneko konparazioa). Horregatik, pentsa daiteke euskarari leporatzen zaizkion horietako batzuk ere barne bilakaeraren fruitu direla, edo auzo erromantzeek eragindakoak, ez nahitaez euskarak zuzenki bulkatuak.

Besterik da *Estaran*, *Canparan*, *Cansuberry*, *Aran* edo *Arate*, *Ausate*, *Broate* (badira bukaeran *-i* dutenak, hala ere: *Aurati*, *Miati*...) euskarazkotzat jotzea, hemen etimologiak laguntzen baitu edo lagundu baitezake; ez dakit Jakerriko *Cenarbe* toponimoa *azenari-be* 'sol de renards', 'endroit hanté par les renards' ulertu behar den (Irigoienek, 1986: 209, *Acenar*-antroponimoa eta *-be* dakuski hemen; ikus izen honetaz gorago dioguna), baina segurua da, nire irudiko, *Borén*, *Baién*, *Larén*, *Llarvén* toponimoetan ezin dela Corominesek nahi zuen bezala genitiboaren atzizkia ikusi, gurean holakorik ez dagoelako, besteak beste. *Escasse*, *Escassi* leku izenak *askazi*-rekin lotzeak edo *Sórguen sorgin*-etik eratoritzeak ere ez dut uste oinarri ona duten; *Biscarri*, *Navarri* eta *Unarre*-k euskal itxura badute, eta ezin dira, Corominesek berak dioenez (1961: 135), katalaneko edo latineko *-ar(e)*-tik eratorri, baina nik ez dakuskit garbi hizkuntzalari katalanak proposatzen dituen *Unarre* < *u(n)arr* 'torrent' < *ur-arr*, *Cabascarri* < *karri-bizkar* 'crête du roc' > **Carbescarri*, *Artedó* < *arte-dum* bilakaerak, partikulazki hondarreko biak. Egiantz handiagokoa da *Isavarre*-k, *Isavals*-ek eta *Isàvena*-k Nafarroako *Isaba*-rekin nolabaiteko lotura izatea (ibid., 135), azken hau euskaraz *Izaba* dela oroitarazi behar bada ere.

Alfontso Irigoien zenak 1986ko lan bikainean Pirinioetako eta inguruetako hainbat euskal toponimo aipatzen ditu, batzuk zaharrak, Sordeko kar-

tulariokoak, beste batzuk berriak (mapetan aurkituak) eta beste batzuk bietakoak. Datuak ikusirik erran beharra da gehienak Euskal Herritik hurbilekoak direla, espero izatekoa zen bezala. Pirinioez iparraldeko datuak hauek dira: *Larrebaig*, *Larrerbaít* (1170), Akize aldeko *Larrebaigt*-ekin identifikatu dena (*larre* + 'ibarra' adiera duen osagaia; cf. *Ostabat* / *Ostibarre*, *Lantabat* / *Landibarre*), *Lanave* (Jabarrella, Sabiñánigo), *Bracelai*, *Brasselay* (XII. mendearen hasiera; *zelai* dukegu hemen), *Arsague* (1010-1032, Landetan; *-aga* atzizkia dakusa), *Calagorris* (Akizetik Tolosarako bidean, Antoninoren ibilbidea delakoan; hemen *-gorri* ikusten duela dirudi), *Bigorra* (**Bigorre(m)* akusatibotik; **Bigorris* zatekeen nominatiboa, zein *Baigorri*-rekin erka baitaiteke, *Bégorre* (< *Baigorri*; bat Aturri ibaitik gora, ez urruti, bigarrena Pardies ondoan. Huescako Montanúy herriko *Bigüerri* ere badakar), *Lagor* (Pirinio Atlantikoak; *-gorri* du bukaeran, bizkaitar euskaltzainaren arabera, *-güerre* bilakatua Huescan. Caro Baroja ez dago honekin ados, 1981: 21), *Lesgor* (Meés aldean, aitzinekoarekin aldera daiteke), *Hossegor* (eta *Hossegain*, 1343), *Biscam* (St-Jean-de-Marsacq aldeko mendikoa, *bizkai*, *bizkar*-ekin erlazionatua apika).

Irigoienek aipatzen dituen beste batzuk hauek dira: *Larrart* (< *larre* + *arte*), *Bessart* (*Basarte*-ren iruditsua), biak *Saint-Martin-de-Hinx*-etik hurbil, *Yrache* (Nafarroako *Iratxe* eta *Iratxeta*-ren etimologia berekoa, hots, *ira* + *-tze*; Seignosse), *Berrouague* (< *Berruaga* < *Berroaga*, Ondres aldean), *Montharan* (Nafarroako *Aramendia*-ren tankerakoa, Hossegortik ez urrun; *Aramon* ere bada, Abostik hegoaldera), *Labegorre* (< *labe* edo *la* artikulua + *Begorre*; cf. *Baigorri* eta Huescako *Labagüerre* hoskidea), *Iriartigoyti*, *Andorre*, *Garrietche* (*etxe*), *Larrayadiou*, *Arbes* (pluralgile erromanikoa duen *Arbe*-ren aldaera bada), *Lassègue* (*Lasaga*), *Haut de Gan*, *Gan* eta *Ganas* (< *gan* < *gain*), *Larriaga* (*-aga*, Mourenx), *Orgambide* (Lahourcade eta Monein artean, 'gurdibidea'), *Aspe* ('haizpea'), *Larraga* (< *lahar* + *-aga*), *Súberco* (beharbada Bizkaiko *Zubero* toponimoen eta *Zuberoa*-ren txikigarria, Irigoienen arabera), *Ibarc* (< *ibar*), *Daguère* (< *Daguerre* < *de Aguerre?*), *Lacu* ('lac'), *Biscarros* (bi dira) eta *Biscarrosse* (< *bizkar*), *Bidache* (hiru, Euskal Herriko *Bidache-Bidaxune*-ren berdina, *bide*-rekin erlazionatuak menturaz), *Garat*, *Lassabaigt* (1545, 'Lassa ibarra', eta *Lassa* < *lats*), *Bidegana* (Sorde, XII. m., *gana* 'gaina'; Huescan *Fuente de Gaña* dago), *Bésaury* (apika *Basauri*-rekin lotua, (*h*)*uri* mendebaldekoa bada ere).

Beste toponimo batzuk Euskal Herritik oso-oso hurbil daude, Jeruntze aldean: *Muscagorry*, *Lahargune*, *Hagolle*, *Bagole* (cf. *Pagola*), *Biscaye*, *Saldu*, *Etchartaberry*, *Bidart*, *Lurbe*, *Larrague*, *Laussaharri* 'lauza, lauza harria', *Arrio-*

le, Briscain, Darralde (-alde), Larcebeau, Bordegaray, Bois de Garay, Biscarce eta *Col de Biscarce* (< *bizkar* eta atzizkia), *Pic d'Andurte* (< *andur* 'ruin, mezquino, escaso' + *-te*), *Bois d'Aran, Castétarbe* (< *Arbe* < *harri* + *-be*; hau Aragoian ere azaltzen da), *Arantze* (< *arantze* 'espino' menturaz).

Mendiez hegoaldeko eremuari dagokionez, Menéndez Pidalek 1918ko lanean dioena ontzat hartzen du, *berri* eta *gorri*-ren gainekoak bederik, eta *-erri*-ren ingurukoak ere bai, antza duenez (ikus, orobat, Irigoienen 1981eko lana). Caro Baroja (1981: 21-22) ez da akort Menéndez Pidalek dioenarekin, eta azpimarratzekoa da *Javier* (*Javierre, Javierregay, Javierrelatre, Javierre del Obispo*) < *Etxaberri* azalpena ez duela onesten. Honela dio (ibid.):

Si se supone, como hay derecho a la luz de los ejemplos dados, que bastantes de estas formas son de genitivo de singular hay que admitir una base que podría ser incluso sencillamente, *scaber*, con muchos derivados, que denotan rugosidad, aspereza, erizamiento y que da en castellano moderno el mismo adjetivo *escabroso* aplicado a tierras y terrenos, tanto como a cuestiones morales.

Oin-ohar batean dio, segur aski *-i-z* bukatzen diren aldaera dokumentalak justifikatzeko, toponimoa *scabri* neutro batetik heldu datekeela, hots, *Scabrum*-en genitibotik. *Benasque, Benabarre* eta *Loarre*-ren bukaerako *-e* paragogikoa iruditzen zaio (ibid., 20), eta *Alascorr, Alascorri*-n (genit.) *-corri* forma kasuarena da, ez beraz *-gorri*-tik atera dena. *Lascurarre*-n, bestetik, ez dago diptongatzerik, eta, hortaz, *-gorri*-rik ezin ikus, *Ligüerre*-n ezin ikus daitekeen moduan (*Ligier, Ligiera* agirietan). Irigoienek dio Errioxako Briones herriko *Mendigüerra* toponimoa *Mendigorri*-tik atera dela (1986: 194; 1981eko lanean *Mendigüerra* < **Mendigüerre* < **Mendigorri* dakar), eta, beraz, hau hone-la balitz, eta itxura badu, ez legoke arazorik aipatutako *Ligüerre, Lascurarre*-ren modukoak *-gorri*-tik eratortzeko. Dokumentazioak, ordea, Caro Barojak nabarmendu duen gisan, ez du laguntzen.

Bizkaitar euskaltzainak biltzen dituen beste batzuk hauek dira: *Lumbier, Valdelumbiere, Jabarella, Jabarraz, Jabarrillo, Jabarret* (atzizkia beharbada *-eta* plurala zela dio), *Juvierre* (Castejón de los Monegros), *Bixessarri* (Andorra aldea, Corominesek aipatzen du; Irigoienen ustez *sarri* duke bukaeran), *Lubierre* (< *luberr*, diptongaziorik gabe), *Trajivierre* (Aguas, Huesca), *Castelsubierre* (< *berri*), *Bagüer* (Urdués eta Hecho), *Bigüerri* (Montanúy), *Escuer* (< *gorri*), *Igüer, Igüerra, Iguarra, Labagüerre, Ligüerre, Ligüerri, Siguerr*, *Andorra* (euskarazko *andur*-ekin lotzen du), *Aran, Bascaran* (*Basco* gentilizioa denez geroztik, Erdi Aroan pertsona izena izan zitekeela erraten du), *Estaran, Arbea, Arve, Campodarbe, Arbeost, Sobrarbe, Ariza* (*haritza*), *Arriaga, Orbil...*

Anitz dira mendiez bi aldeetan Irigoienek aipatzen dituen euskal toponimoak; Euskal Herritik hurbil daudenetan arazo handirik ez dago, baina besteetan, Hegoaldean diptongoa dutenetan, ustez *gorri*, *berri*-tik heldu diren horietan Caro Barojaren trabak eta oztopoak gainditu behar genituzke. Kasu askotan, gainera, ez dago dokumentaziorik, eta hori gabe zaila da alde edo kontra egitea. Erran dezakedana da balitekeela, baina segurua ez dela. *Andorra* euskarazko *andur* izenondoarekin lotua egon daitekeela egia da, baina, nire ustez, frogatua egotetik urrun da, bokalismoarengatik (Nafarroan beti *Andurra* ageri da) eta printzerriaren izenak duen bukaerako *-a* horrengatik¹. *Basa* (< *Bagassa*) forma *bagatza*-rekin lotu behar den balizko kontua da.

Beste batzuek, *-aran* dutenek adibidez, franko argiak irudi dute, itxuraz bederik, eta *Arbe*-z eta eratorriez beste horrenbeste erran daiteke kasu gehienetan. *Arriaga* gardena da, baina *Ariza*-n *haritza* dea? *Artaso* eta *Artasona* Nafarroako *Artaxo* eta *Artaxoa*, hots, *Artajo* eta *Artajona*-rekin ere lotzekoak dira, *Artazu*-rekin ez ezik; *Artaun* (Almudébar, Huesca) Dimako *Artaun*-ekin identifika daitekeela dirudi, baina Irigoienek berak dioenez kontua ez dago garbi. *Ayerbe* ere euskarazkoa dateke, eta orobat *Azpe*, *Aspe*, *Bagüeta* (Anso), *Escurra* (ugaldea), *Ezpela* (Fago), *Larraga* (Bielsa), *Orbea* (Bolea, Huesca; odonimoa), *Sarasa del Olmo* (Jaka), *Ugarreta* (La Puebla de Castro), *Obarra* (*Ybarra*, (*H*)*uarra* ere dokumentatua), *Bisaurri* (Huesca)... Beste batzuetan lekua ezagutu behar genuke erabakitzeko: *Belarra*, argibidez, ‘kopeta’ ‘bekokia’ izan daiteke toponimian, baina bakarrik kokalekuak laguntzen badu; toki zelai eta lau bada beste zerbaitetan pentsatu beharko da. Beste toki-izen mordoxka batek *-be* du: *Bolave*, *Eserbe*, *Içarbe* (XI. mendean geroztik), *Lanave*, *Sásave*...

Zenbait aldiz, toponimoa euskaratikakoa izan daiteke, baina ez nahitaez: *Fuente de Landeta* (Anso) toponimoan *landa* + *-eta* euskarazkoa izan dezakegu, baina baita *landa* + *-eta* txikigarri erromantzea eta, bide beretik, Aniésko *Larrayeta*-n irudi duenez (*Larraia* + *-eta* Irigoienen arabera, 218) beste zerbait ere egon daiteke. Batzuetan bizkaitarrak biltzen dituen datuetan deiturak dituzkegu, ez toponimoak (Esplúsko *Acequia de Lizárraga*-n edo Monzóngo *Torre Salazar*-en, adibidez). Franko aldiz euskaratikakotzat izan daiteke toponimoa, holako soinua du, baina dokumentazioa eta izenaren goitibeheitiak

¹ Bestalde, Martínez Areta (2007: 704, 709) hizpidean balego, hots, *andur* izenondoak osagaitzat **ban* “esanahi deungakoa” eta *-dúr* osagaiak balitu, *Andorra*-rekiko esteka zirpildurik geldituko litzateke, etenik ez bada.

ezagutu behar erabakia hartzeko, hots hutsa gorago zehaztu bezala aski ez delako: *Sagarras Bajas* (Benabarre), *Urrea de Jalón* (Zaragoza).

Ondoriotako erranen nuke seguruak ez diren toponimo asko eman direla euskaratikakotzat eta lan honetan ezarritako iragazkiak erabili behar liratekeela gutxieneko bermearekin lan egin ahal izateko. Hala eta gutiz ere, aipatu iragazki horiek guztiak igarotzeak ez du baitezpada erran nahi toponimoa ez-bairik gabe gure hizkuntzatik ateraita dela. Bestalde, franko ziurrak direnak Euskal Herriaren ingurukoak dira gehienak.

Bibliografia

- Alvar, M., 1949, "Nombres de núcleos de población en el alto valle del río Aragón", *Actas de la primera reunión de toponimia pirenaica. Jaca, agosto de 1948*, Cursos del Instituto de Estudios Pirenaicos, Zaragoza, 25-34.
- , 1951, "Voces prerromanas en la toponimia pirenaica (arte, gaparra, karri, muga)", *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra. Estudios relativos al País Vasco*, BRASP, Donostia, hirugarren liburukia, 7-15.
- Caro, J., 1945, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca. Bada Txertoa argitaletxeak Donostian 1990ean egindako beste argitalpen bat.
- , 1981, "Sobre la toponimia del Pirineo aragonés", *AFA* 28-29, 7-29.
- , 1995 (1949), *Los Vascos*, Istmo, Madril.
- Castillo, C., 1992, "La onomástica en las inscripciones romanas de Navarra", *2º Congreso General de Historia de Navarra*, PV-ren gehigarriak 14, Iruñea, 117-133.
- Coromines, J., 1955, "Toponimia d'Andorra", *Recueil de travaux offert à M. Clovis Brunel, membre de l'Institut, directeur honoraire de l'École*, Paris, Société l'École de Char, I, 288-310.
- , 1955b, "Sobre els elements pre-romans del domini català", *VII Congreso Internacional de Lingüística Románica. Universidad de Barcelona, 7-10 Abril de 1953. II. Actas y memorias. I*. Barcelona: Abadía de San Cugat del Vallés, 401-416.
- , 1958, "Suggestions on the origin of some old place names in Castilian Spain", *Romanica: Festschrift für Gerhard Rohlfs*, 97-120.

- , 1961, “La toponymie hispanique préromane et la survivance du basque jusqu’au bas moyen âge”, *VI^e Congrès International de Sciences Onomastiques (München, 1958)*, I, 105-146.
- Elcock, W. D., 1949, “Toponimia menor en el alto Aragón”, *Actas de la primera reunión de toponimia pirenaica, Jaca, agosto de 1948*, Cursos del Instituto de Estudios Pirenaicos, Zaragoza, 77-118.
- Euskaltzaindia, 1990, *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra (NHI)*, Euskaltzaindia — Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Fénié, B. eta Fénié, J.-J., 1992, *Toponymie gasconne*, Éditions Sud Ouest, Luçon.
- Fouché, P., 1947, “À propos de la Madaleta”, *Onomastica* 1, 4-20.
- Goñi, J., 1997, *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona. 829-1243*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Gorrotxategi, J., 1995, “Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas”, *Veleia* 12, 181-234.
- , 1997, “Gallaecia e as linguas prerromanas da península Ibérica”, *Galicia fai dous mil anos: o feito diferencial galego*, M. X. Fernández eta G. Pereira koord., I, Santiago de Compostela 15-50.
- Griera, A., 1950, “La cultura prerromana del Pirineo reflejada en la toponimia”, *Helmántica* 2, 238-248.
- Grosclaude, M., 1991, *Dictionnaire toponymique des communes du Bearn*, Escòla Gaston Febus, Paue.
- Irigoién, A., 1981, “Palabras y topónimos vascos de Briones”, *Homenaje a Odón de Apraiz*, Gasteiz, 149-156.
- , 1986, “Cuestiones de toponimia vasca y circumpirenaica”, *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 173-306.
- , 1990, *Sobre Toponimia del País Vasco Norpirenaico (Observaciones en torno a la obra Toponymie Basque de Jean-Baptiste Orpustan)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Lapesa, R., 1972, “La toponimia como herencia histórica y lingüística”, *Coloquio sobre toponimia celebrado en Madrid los días 21, 22 y 23 de mayo de 1969*, Madrid, 9-23.

- Lopez-Mugartza, J. K., 2008, *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Mendaur V, Euskaltzaindia — Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Martin, A., 1983, *Documentación Medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Nafarroako Foru Aldundia, Príncipe de Viana, Iruñea.
- Martinez, M., 2007, “Adjektiboa aitzin-euskaraz”, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask / R. L. Trasken Oroitzapenetan. Ikerketak Euskalaritzaz eta Hizkuntzalaritza Historikoaz*, J. A. Lakarra eta J. I. Hualde arg., *ASJU* XL: 1-2 (2006), Gipuzkoako Foru Aldundia — Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia — Bilbo, 587-722.
- Ménendez, R., 1948, “«Javier-Chávarri», dos dialectos ibéricos”, *Emerita* 16, 1-13. Ondoko urtean berriz agertu zen, lan honetan: *Actas de la primera reunión de toponimia pirenaica, Jaca, agosto de 1948*, Cursos del Instituto de Estudios Pirenaicos, Zaragoza, 1-10.
- , 1986 (1926), *Orígenes del Español*, Espasa-Calpe, Madril, hamargarren argitalpena.
- Meyer-Lübke, W., 1923, “Els noms de lloc en el domini de la diòcesi d’Urgell”, *Bulletí de Dialectologia Catalana* 11, 1-32.
- Mitxelena, K., 1954, “*De la pronunciació medieval a la moderna en español*, por Amado Alonso”, erreseina, *BRSVAP* 10, 376-386.
- , 1956, “Introducción fonética a la onomástica vasca”, *Emerita* 24, 167-186 eta 331-352.
- , 1987-2005, *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1990, *Fonética Histórica Vasca (FHV)*, «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 4. argitaraldia.
- , 1997, *Apellidos Vascos (AV)*, Txertoa, Donostia, bosgarren argitaraldia.
- Morvan, M., 2004, *Noms de lieux du Pays Basque et de Gascogne*, Bonneton, Paris.
- Núñez, L., 2004, *El Euskera arcaico*, Txalaparta, Tafalla.
- Orpustan, J.-B., 1990, *Toponymie Basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele.

- Ravier, X., 1963, “Le suffixe toponymique pyrénéen: *-un*”, *Via Domitia*, 57-85.
- Rohlf, S., 1931, “Beiträge zur Kenntnis der Pyrenäenmundarten”, *Revue de Linguistique Romane* 7, 119-169.
- , 1952, “Sur une couche préromane dans la toponymie de Gascogne et de l’Espagne du Nord”, *RFE* 36, 209-256.
- , 1952b, “Le suffixe préroman *-ué*, *-uy* dans la toponymie aragonaise et catalane”, *AFA* 4, 129-152.
- , 1955, “Couches de colonisation romaine et pré-romaine en Gascogne”, *Revue Internationale d’Onomastique* 7.1, 1-12.
- Salaberri, P., 2004, *Nafarroa Behereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Séguy, J., 1951, “Le suffixe toponymique *-os* en Aquitaine”, *Actes des Mémoires du troisième Congrès International de Toponymie*, II, Louvain, 218-222.
- Terrado, X., 1992, *Toponímia de Betesa*, Institut d’Estudis Ilerdencs, Lleida.
- Velaza, J., 1995, “Epigrafía y dominios lingüísticos en territorio de los vascos”, *Coloquio sobre Roma y el Nacimiento de la cultura epigráfica en Occidente*, Fco. Beltrán arg., Institución Fdo. el Católico, Zaragoza, 209-218.